



ABANDOKO  
SAN BIZENTE MARTIRIAREN  
PARROKIA

PARROQUIA  
DE SAN VICENTE MÁRTIR  
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)  
T. 94 423 12 96  
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

## EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Egin Horrek esango dizuena”

2022ko urtarrilaren 16a  
Urteko 2. igandea (C)

### Joan 2, 1-11.

Hiru egunera, ezteiak izan ziren Galileako Kanan, eta han zen Jesusen ama. Jesus eta beronen ikasleak ere gonbidatu zituzten ezteietara. Eta ardo amaitu baitzen, esan zion amak Jesusi: -Ez dute ardorik. Jesusek erantzun zion: -Utz nazazu bakean, emakume. Oraino ez da etorri nire ordua. Jesusen amak honela esan zion zerbitzariari: “Egin horrek esango dizuena”. Baziren han harrizko sei ur-ontzi, juduek beren garbikuntzetarako erabili ohi zituztenak, ehunen bat litrokoa bakoitza. Jesusek esan zion zerbitzariari: -Bete ontziak urez. Haiek goraino bete zituzten. Orduan, esan zion: -Atera pixka bat eta eraman mahaizainari. Hala egin zuten haiek. Mahaizainak ardo bihurtutako ura dastatu zuen, nongoa zen jakin gabe; zerbitzariak, bai, bazekiten, beraiek atera baitzuten ura. Ardo berria dastatu zueneko, senarrari dei egin eta esan zion: “Jende guztiak ardorik onena atera ohi du lehenik eta, jendea aski edanda dagoenean, arruntagoa; zuk, berriz, orain arte gorde duzu ardorik onena”. Bere lehen mirarizko seinale hau Galileako Kanan egin zuen Jesusek; honela, bere Jainko-aintza agertu zuen, eta ikasleek sinetsi egin zuten harenan.

“Jende guztiak ardorik onena atera ohi du lehenik eta, jendea aski edanda dagoenean, arruntagoa;  
zuk, berriz, orain arte gorde duzu ardorik onena”

## KEINU HIZKUNTZA

*Jose Antonio Pagola*

Joan ebanjelariak ez dio Jesusek «mirariak» edo «mirakuluak» egin zituenik. «Seinaleak» izena eman die Joanek; hain zuzen ere, gure begiek ikus dezaketena baino sakonagora garamatzaten keinuak direlako. Zehazki, Jesusek egin dituen seinaleak hari begira jartzen gaituzte eta haren indar salbatzailea aurkiarazten digute.

Seinale guztien hasiera da Galileako Kanan gertatua. Bere bizitza guztian Jesusek burutu dituen seinale guztien prototipoa. «Ura ardo bihurtze» horretan eskaini digu Jesusek giltza, berak dagien salbazio-erlaketaren mota ulertzeko; baita, haren izenean, haren jarraitzaileek eskainiko dutenarena ere.

Eztei baten markoan gertatu da guztia; jairik gizatarrenaren, maitasunaren sinbolo adierazkorrenaren, Jainkoak gizakiarekin egin duen elkarte behin betikoa iradokitzeke Bibliaren tradizioko imajinarik hobenenaren markoan. Jesu Kristoren salbazioa honela behar dute bizi eta eskaini haren jarraitzaileek: giza jaiak bete-beteko egiten dituen jai bezala, haiek huts gertatzen direnean, hau da, «ardorik gabeko» eta zorientasun osoaren gure gogoa betetzeko ez-gai direnean.

Besterik ere iradokitzen du kontakizun honek. Orduan bakarrik har dakioko urari ardo-gustua: juduek beren burua garbi egiteko harrizko sei urontzi handitan izan ohi duten eta, Jesusen hitzari jarraituz, haietatik aterea denean. Harrizko harlauzatan idatzia den legearen erlijioa agortua da jada: ez da gai gizakia garbi egiteko. Jesusek dakarren maitasunaz eta biziaz liberatu beharra da erlijio hori.

Jendea ezin da ebanjelizatu nolana. Jesusen indar eraldatzailea komunikatzeko ez dira aski hitzak, beharrezkoak dira keinuak. Ebanjelizatzea ez datza hitz egite hutsean, predikatze eta irakaste hutsean, are gutxiago juzgatzean, mehatxu egitean edo gaitzestean. Premiazkoa da eguneratzea, leialtasun sortzailez, Jesusek egin ohi zituen seinaleak; hain juxtu, landa-jende haren bizitza latza gozatzeko, Jainkoagandiko alaitasuna gizarteratuz, Jesusek egiten zituen seinaleak eguneratu beharra da.

Gaur egungo jende askori Elizaren hitza bost axola dio. Aspertu egiten da gure ospakizunetan. Elizagandik seinale hurbilagokoak eta adiskidetsuagoak nahi ditu, bizitzako sufrimendua eta laztasuna eztatzeke kristauengan gaitasun handiagoa ikusi ahal izateko.

Zein ibiliko da berri gozagarri ez den zerbait bila?, nagusiki ebanjeliora jauntxokeriaz eta mehatxuz joz jokatzeko bada? Jesu Kristo jende askok bizitzeko indar eta eragin bezala espero du, eta era zentzuzkoagoz eta pozgarriagoz bizitzeko bide bezala. «Erljio geldoa» soilik eskaintzen bazaie, ezin dastatu ahal izango dute Jesusek kutsatu ohi zuen jai-alaitasun hura, eta urrunduz jarraituko du jendeak.